

# Ireki da izena emateko epea Pertsonen Garapena eta Taldetako Lidergoa aditu ikastaroan

2008/05/21

Dagoeneko ireki da epea izena emateko Pertsonen Garapena eta Taldetako Lidergoa aditu ikastaroan. Matrikula gauzatuko da azaroan, eta **ikastaroa berá hasiko da 2009ko urtarrilaren 9an**, eta iraungo du urte bereko **abenduaren 18a arte**. Ikastaro hau antolatu du Mondragon Unibertsitateko Pertsonen eta Taldeen Garapenerako Kudeaketa Unitateak, Newfield aholkularitzaren eta Gipuzkoako zein Arabako merkataritza ganberen laguntzarekin. **Marian Iriondo** eta **Elena Quevedo** arduratuko dira ikastaroaz.



## Nori zuzendua

Jende askok har dezake parte aditu ikastaro honetan:

- Talde zuzendari eta arduradunak.
- Pertsonak kudeatzeko sailetan dabilzan teknikari eta zuzendariak.
- Joera berriak kontuan hartu nahi dituzten zuzendariak.
- Goi mailako unibertsitate tituludunak, espezializatu nahi dutenak talde lidergoan.
- Maila ertaineko unibertsitate tituludunak, interesa dutenak pertsona garapenean eta talde lidergoan.

## Hiru modulu

1. Aditu ikastaro honek hiru modulu izango ditu:
  - Eskumenak eta baliabideak pertsonen kudeaketan. 30 ordu.
  - Eskumenak lidergorako. 180 ordu.
  - Azken proiektua. 100 ordu.

## Irakasleak

Lau irakasle motak irakatsiko dute ikastaro honetan:

- Mondragon Unibertsitatekoak.
- Newfield Consultingekoak.
- Kanpo aholkulariak.
- Enpresa profesionalak.

## Argibide gehiagorako

Ikastaro honetan saio presentzialak eta on linekoak izango dira, baita ikastaroan garatutako alderdiak osatzera bideratutako lanak ere. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak ikastaro honen gainean, **Elena Quevedori** dei egin diezaioke (615 74 53 42) edo mezu bat bidali helbide honetara: [elena\\_quevedo@huhezi.edu](mailto:elena_quevedo@huhezi.edu)